Periferiaren dependentzia eta azpigarapena (1973)

1960ko hamarkadatik batez ere, azpigarapena azaltzen saiatu diren zenbait teoria eta eskola sortu dira: horien artean funtsezkoenetakoa dugu dependentziarena edo azpigarapena herrialde aberatsen garapenaren ondorio dela defendatzen duena. Ekonomia marxistaren ildotik, Samir Amin egiptoarra eskola honetako gailurretako bat dugu, bere testu trinkoetatik ateratako pasarte honek adierazten duen bezala.

Produkzio-era kapitalista aztertuz, produkzio-ondasunen eta kontsumo-ondasunen ekoizpenaren arteko osagarritasun erlazioa autoerdiratutako metaketa prozesuaren ardatzetako bat zela ikusi genuen. Erlazio horrek beste batera eramaten gintuen, produkzio-indarren garapen maila (gizarte-lanaren produktibitatea) eta plusbalio-tasa (hots, soldata errealaren maila) elkartzen dituenera. Azkeneko harreman hau funtsezkoa da: mozkin-tasaren beheranzko joeraren natura atzemateko bide bakarra dugu, metaketa autoerdiratuaren kontzeptuaren zentzua atzemateko alegia.

Metaketa autoerdiratuak ez du autarkia esan nahi. Ikusi dugu, ordea, atzerri-merkataritzak jokatzen zuen rol erabakigarria, ez soilik produkzio-era kapitalistaren genesian, garai merkantilistan, baizik eta baita industri iraultzatik aurrera ere. Hala ere, atzerri merkataritza metaketa autoerdiratuaren baldintzapean egon ohi da eta hau burutzeko bideetako bat dugu. Beste era batean esanda, ekonomia autoerdiratuek euren aldeko nazioarteko espezializazioren bat inposatzen dute.

Espezializazio ezberdin hau jasaten duen periferiaren ikuspuntutik asimetria-harreman hau aztertzen badugu, funtsean oso bestelakoa den metaketa eredu bat aurkitzen dugu.

Hasiera batean merkatuaren eraketa eta ezaugarritzean funtzio erabakigarria izango duen sektore esportatzaile batekin egingo dugu topo. Erdiguneko kapital nazionala ez da emigratzera behartuta izango zentroko inbertsio-guneen ez-nahikotasuna dela eta; periferiara emigratuko du baldin eta etekin handiagoa lortu badezake bakarrik. Mozkin tasaren doitzeak ordainsari honen etekinak hobeto banatuko ditu eta kapitalen esportazioa mozkin tasaren beheranzko joera borrokatzeko bide bilakatuko du. Periferian lortzea kapital konstantearen (lehengaiak) edo kapital aldakorraren (elikadura-produktuak) elementuak izan daitezkeenak, antzeko produktuak (edo ordezkoak, kafea edo tea bezalako gai berezien kasuan bezala) erdigunean lortu ahal diren baino ekoizpen-prezio txikiagoetan hauxe da esportazio-sektore horren erakuntzaren arrazoia.

Periferiak esportatutako produktuak interesgarriak dira lanaren ordainketa –produktibitate eta baldintza berberekin– zentroan baino txikiagoa izan daitekeen heinean. Eta hala izan daiteke gizarte hura edozein bide -ekonomiko nahiz extraekonomiko-erabilita, funtzio honetara makurtzen den heinean: sektore esportatzailea lanesku merkeaz hornitu behar du.

Gizartea funtzio berri honetara makurtzen denean bere izaera «tradizionala» galtzen du: izan ere, gizarte aurrekapitalisten funtzioa ez da kapitalismoari lanesku merkea eskaintzea hain zuzen ere... Erdiguneko metaketa-prozesua bereizten duen ardatz nagusia-lanaren ordainketaren eta produkzio-indarren arteko harreman objektibo baten existentzia-guztiz desagertzen da. Sektore esportatzaileko lanaren ordainketa, baldintza ekonomiko, sozial eta politikoek ahalbidetzen duten bezain txikia izango da. Produkzio-indarren garapen mailari dagokionez-, hetereogeneoa izango da (eredu autoerdiratuan homogeneoa zen, ordea): aurreratua sektore esportatzailean (batzuetan are oso aurreratua), atzeratua gainerako ekonomian; atzerapen hau, sistemak eragindakoa, sektore esportatzaileak lanesku merkeaz goza dezan ezinbesteko baldintza litzateke.

Baldintza hauek direla medio, sektore esportatzaileak eratutako barne-merkatua mugatuta geratuko da. Honek azaltzen du periferiak zentrotik etorritako kapitalen bolumen mugatua erakartzea, ordainketa hobeagoa eskaintzen badie ere. Munduko sistemaren eskalan, kontsumo- eta ekoizpen-ahalmenen arteko kontraesana gainditzen da erdiguneko merkatuaren zabalkuntzaren bidez, periferiak soilik bazterreko, menpeko eta mugaturiko funtzioa betetzen duen bitartean. Dinamika honek erdigunearen aldeko aberastasunaren polarizazio hazkorrera daramatza.

Hala ere, sektore esportatzailearen tamaina-maila batetik aurrera, barne-merkatu bat eratzen da. Erdiguneko prozesuan eratutako merkatuarekin konparatuz, horrek luxuzko kontsumo-ondasunen eskaria indartzen du, masentzako ondasunen kaltetan. Sektore esportatzailean inbertituriko kapital guztia atzerritarra balitz, eta kapital horren mozkin guztiak erdigunerantz berresportatuko balira, barne-merkatua masentzako kontsumo-ondasunen eskari batera mugatuko litzateke, lanaren ordainketaren ahuleziaren araberakoa. Baina kapital horren zati bat bertakoa da. Beste alde batetik, lanaren ordainketa maila txikia ziurtatzeko bideek transmisio-uhalaren funtzioa bete ohi duten lekuko parasito-gizarte mailak berrindartzen dituzte: latifundistak, kulakak, merkatari-burgesia, estatu-bulegokrazia, etab. Barne-merkatua, beraz, gizarte maila hauen luxuzko ondasunen eskarian oinarrituko da nagusiki.

Hala, sektore esportatzailearen eta luxuaren kontsumoaren arteko harremanaren bidez adieraziko den berariazko giltzadura batek bereizten du periferiako menpeko eredua, metaketaz eta ekonomi- eta gizarte-garapenaz. Inportazioak ordezkatuko dituen industrializazioa, beraz, bukaeratik hasiko da, hots, erdiguneko garapen maila aurreratuenekoak diren produktuetatik, ondasun iraunkorretatik. Baina produktu hauek kapital eta produktu urri ugari kontsumitzen dituzte. Baliabide-izendapenean funtsezko distortsio bat gertatuko da, beraz, produktu hauen alde, masen kontsumo-ondasunen produkzioaren kaltean. Horrek ez du produktu horien inolako eskaririk

eragingo eta ez du bere modernizazioa posible egingo lukeen inolako finantza- edo giza-biderik erakarriko. Horrek azaltzen du biziraupeneko nekazaritzaren iraunkortasuna. "Errentagarritasunean" oinarritutako garapenerako estrategia-erabaki orok –errentaren banaketa-egiturak eta prezio erlatibo eta eskariaren egiturak dena direlakoak izanik– nahitaez distortsio horretara darama. Testuinguru honetan kokatzen diren industria urriak ez dira garapenerako polo bihurtuko, sistemaren barneko ezberdintasunak sakonduko dituzte ordea, populazioaren masa (hots, ekoizle gisa masentzako kontsumo-ondasunen sekzioan kokatzen dena) ahulduz, eta ordain gisa gutxiengoaren integrazioa mundu-sisteman baimenduz.

Gizarte-ikuspuntu batetik, eredu honek fenomeno berezi batera darama: masen "marjinalizaziora", hau da, pobretze-mekanismo batzuetara: nekazaritza- eta artesautza-ekoizle txikien proletarizaziora, nekazari-semiproletarizaziora eta komunitateetan antolaturiko nekazarien proletarizaziorik gabeko pobretzera, hiritartzera eta ageriko hiri-langabeziaren eta azpienpleguaren hazkundera, etab. Azpienpleguak, mugatua eta egonkorra izan beharrean, hazteko joera orokorra izango du, koiunturaren gora-beheren arabera. Langabeziaren funtzioa, beraz, erdiguneko ereduan betetzen duenaz desberdintzen da; hemen bere zamak lanaren ordainketa gutxiengo erlatiboki zurruna eta blokeatua ziurtatzen du, hala esportaziorako sektorean nola luxuzko produktuak eskaintzen duenean; soldata ez da, kasu honetan, aldi berean kostua eta ereduarentzat funtsezkoa den eskariaren eratzailea, baizik eta kostua sailik, eskaria beste nonbait sortzen delarik: atzerrian edo gizarte-kategoria pribilegiodunengan.

Garapenaren jatorri «kanporakoia» luzatzen da, nahiz eta ekonomiaren dibertsifikazio hazkorra edo industrializazioa gertatu: periferiako metaketa-eredu menpekoari dagokio. Funtzionatzeko bere gizarte- eta ekonomi-baldintzak birsortzen ditu, ordea. Masen bazterketak bermatzen du gutxiengoak lortu ahal izatea europar kontsumo-ereduak bereganatzeko beharrezkoak dituzten sarrera hazkorrak. Kontsumo-eredu horren hedapenak luxuzko ondasunak ekoizten dituen sektorea errentagarria bihurtzen du eta klase pribilegiodunen gizarte-, kultura-, ideologi- eta politika-integrazioa sendotzen du.

Garapenaren dibertsifikazio eta sakontze maila honetan, beraz, menperatze/dependentzia mekanismo berriak sortzen dira. Kultura- eta politika-mekanismoak, baina baita ekonomi-mekanismoak ere: teknologi-dependentzia eta enpresa transnazionalen menperatzea. Sektore esportatzaileak eta luxuzko produktuak eskaintzen dituenak, hortaz, soilik oligopolio-enpresa transnazional handiek lanean jar dezaketen capital using inbertsioak bultzatzen dituzte, teknologi-dependentziaren euskarri materiala direlarik.

Baina jabegoaren egituraketa eta ekonomi-kudeaketaren forma konplexuagoak ere agertzen dira. Esperientzia historikoak frogatzen duenez, lekuan lekuko kapital pribatuak askotan parte hartzen du, menpeko moduan bada ere, inportazio-ordezkatze industrializazio prozesuetan. Frogatzen du, baita ere –herrialde handietan bederen–, sektore esportatzaileak sortutako merkatuak eta luxuzko produktuek eratutakoak produkzio-ondasunen sektore baten sorrera

baimentzen duela. Azken hau Estatuak bultzatu ohi du. Oinarrizko industria eta sektore publiko baten garapenak ez du esan nahi, ordea, sistemak autoerdiratutako forma biribil baterantz abiatzen denik. Produkzio-ondasunen sektore hau ez baitago masentzako kontsumo-ondasunen garapenaren zerbitzuan, baizik eta sektore esportatzailearen eta luxuzko produktuenenean. Analisiak gogorarazten du, beraz, oinarrizko galdera: garapena, norentzat? Masentzako garapen politika baten oinarriak baliabideen banaketa-lehentasunen funtsezko berraztertze batean oinarritu beharko lirateke, sistema barneko errentagarritasun arauen arbuioan alegia. Hauxe izango litzateke trantsizio-estrategia baten norabidea.

Beste alde batetik, periferiako ekonomia kapitalista kanporakoietan, soldata maila oso txikietan blokeatu daitekeela ikusi dugu, garapen kanporakoiaren prozesua oztopatu gabe alegia. Produkzio-era kapitalistak, autoerdiratua denean, bakarra bihurtzeko joera du; kanporakoitasunak, ordea, bere garapena oztopatzen du. Zer esan nahi du, baldintza hauetan, ekonomia autoerdiratu / ekonomia kanporakoi pareak? Ekonomia autoerdiratuan gizarte-kontraesanaren bi gaien artean harreman organikoa dagoela: burgesia eta proletalgoa errealitate berberean murgildurik daudela, nazioan alegia. Ordea, ekonomia kanporakoi batean ezin dela aurkakoen batasun hau nazio-markoan atzeman, mundu-mailan baizik. (...)

Elkartruke ezberdinduaren teoriak «erdiguneko langileek periferiakoak esplotatzen dituztela» esan nahi duela uste izateak ez du zentzurik, esplotazioa kapitalaren jabegoak soilik baimentzen baitu. Gainera, bizi-mailaren eta jarrera politikoen arteko harreman mekanizista bat onartzea esan nahiko luke eta, hortaz, azpiegitura-gainegitura dialektika berehalako zehaztapen ekonomizistetara mugatzea. Periferiako burgesiak, bertako proletalgoaren antzera, erdigunearen menperatzeaz askatzeko interesa duela uste izateak, burgesia hura hasieratik erdigunekoak marraztutako ildotik eratu dela ahaztea da.

Elkartruke ezberdinduak esan nahi du klase borrokaren arazoa mundu mailan hartu behar dela kontuan, eta nazio-arazoak ezin direla hartu klase borroka hutsaren funtsezko arazoaren ondoko epifenomeno gisa. Esan nahi du erdiguneko burgesia, mundu-eskalan dagoen bakarra, beti ere proletalgoa ustiatzen ari dela, erdigunean eta periferian, baina periferiakoa era basatiagoan esplotatzen duela, eta hau posible dela burgesia hori bere proletalgoarekin lotzen duen batasunean oinarritzen den mekanismo objektiboari esker. Erdigunean esplotazioa mugatzen duen mekanismo honek ez du kanporakoia den periferian funtzionatzen.

Samir Amin, *Garapen ezberdindua,* Paris 1973.[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Iban Zalduaren baimenaz].